



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ezohiko osoko bilkura
Eguna: 2016ko abenduak 1
Ordua: 9:05 – 09:40
Tokia: Udaletxeko Bilkura Gelan

Bertaratutakoak:

Iñigo Gómez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Alazne Lafragua Ureta
Arkaitz San Jose Martínez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira bertaratu:

José Luis de Valle Duque

M^a Ascensión Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2016ko azaroaren 3an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkatea: zer edo zer aipatu nahi duzue? Nik bai. Bada nire mintzaldi bat, Alkatezaren ebazpenetan, uste dut esan nuela "irtenbide puntuala izan zen zegoen arazorako" eta ez "diru-laguntza puntuala izan zen zegoen arazorako".

Bestelako oharrik egin ez denez, 2016ko azaroaren 3an egindako saioko akta bozkatu da.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzia:

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.



2.- Santa Kolomako zonaldea berreskuratzeko txosten teknikoa.

Alkatea: Informazio Batzordearen irizpena irakurriko dut:

"LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA

Ikusirik Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak egindako txostena, Artziniegako udalerrri barneko Santa Koloma nukleoko bide publikoaren mugaketaren ingurukoa.

KONTUAN HARTUZ, 2016ko irailaren 1ean Udalbatzak onartu egin zuela Santa Kolomako bide publikoaren mugarriak ezartzeko administrazio-espeditentea abian jartzea, Artziniegako 4. poligonoko 738A; 38B; 737A; 26A; 26B eta 49A partzeletan.

IKUSIRIK, 2016ko irailaren 26an, ALHAO aldizkari ofizialaren 108. alean, argitaratu zela mugaketa-espeditentearen hasiera, finka-neurketa lanen hasierarako 2016ko abenduaren 12ko data ezarri zuena, goizeko 10etan.

Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa; nahiz Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 63. artikuluan eta toki araubideari dagokionez aplikagarri diren gainerako araudietan xedatutakoa.

Informazio Batzorde honek Osoko Bilkurari proposatzen dio honakoa onartzea:

AKORDIOA:

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak egindako txostena onartzea eta txosten hori erabiltzea administrazio-bidetik berreskuratzeko datorren 2016ko abenduaren 12an burutuko den finka-neurketatik eratorritako lur guztiak (Esp. zkia. AHÍ-108/15-K05, sarrera-erregistro zkia. 2768, 2016ko azaroaren 28koa)".

Alkatea: hau da batzordearen irizpena. Ez dakit zerbait adierazi nahi duzuen.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

3.- EUDEL euskararen nazioarteko eguneko adierazpena.

Alkatea: hau da Eudelek bidali duen adierazpen-eredua, baina AKOBAn, Eudel kide den erakunde arteko batzordean, onartutako eredua da eta batzorde horretan ere parte hartzen dute hiru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta Uemak. Ongi baderitzozue, adierazpena irakurriko dut.

"ZER EGIN DEZAKET NIK EUSKARAREN ALDE?"

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartearen gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi



zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukera-berdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, bai eta, indarberitzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza-aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburura: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza- elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: "Zer egin dezaket nik euskararen alde?"

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, "Zer egin dezaket nik euskararen alde?" galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz.

¿QUÉ PUEDO HACER YO POR EL EUSKERA?

El tres de diciembre es un día feliz para toda la ciudadanía vasca. Hemos llevado al euskera a un claro crecimiento, desde el declive social que venía conociendo hasta hace cuarenta años. De ser una lengua sobre todo de las generaciones mayores, ha pasado a ser una lengua intergeneracional y, especialmente, de la juventud, de verse constreñido a determinados ámbitos, a adquirir carta de naturaleza en ámbitos sociales en los que nunca había estado presente. De ser la lengua más antigua de Europa, a ser una lengua moderna y adaptada a la sociedad actual.

El euskera está experimentando un acusado crecimiento gracias a la voluntad y al esfuerzo del conjunto de la sociedad. Gracias al hecho de que toda la sociedad ha asumido el euskera como proyecto colectivo. Gracias al compromiso público y privado. Gracias al acuerdo social.

Hemos hecho de la convivencia lingüística un componente de la convivencia social, un elemento esencial de la cohesión social. Hemos situado la igualdad lingüística y la opción



lingüística del individuo en la base de la igualdad de oportunidades entre todos los ciudadanos y ciudadanas.

El Día Internacional del Euskera es, asimismo, un día para tomar impulso. En efecto, hoy nos hallamos todavía lejos de la igualdad social entre las dos lenguas oficiales. El euskera y el castellano gozan, en lo relativo al uso, de idéntico reconocimiento legal, pero viven diferentes situaciones sociales.

Por ello, queremos seguir avanzando. En la Comunidad Autónoma Vasca contamos con dos lenguas oficiales. Pero sigue constituyendo un objetivo, en el conjunto de la sociedad, alcanzar la igualdad social entre las lenguas. Porque estamos orgullosos de la diversidad lingüística, así como de la aportación que a través del euskera hacemos a la diversidad lingüística en el mundo. Porque la diversidad lingüística enriquece nuestra sociedad, porque el euskera enriquece la diversidad lingüística, y en consecuencia, nos enriquece a cada uno de nosotros y nosotras. Queremos, como dijo Etxepare, que el euskera salga a la plaza, queremos que el euskera viva fuerte y sano en todos sus territorios.

Que el euskera sea una lengua usada y viva: he ahí nuestro objetivo. Un objetivo que requiere la voluntad y esfuerzo de todos y todas; un objetivo ilusionante; un objetivo que nos interpela a todos y todas: individuos y colectivos, poderes públicos, partidos políticos, sindicatos, asociaciones de empresarios y empresarias, asociaciones deportivas, de ocio o culturales, organizaciones de los diversos ámbitos de la sociedad, et. Es un objetivo que nos agrada, un compromiso que asumimos con gusto.

Por ello, los poderes públicos y los más diversos agentes sociales nos hemos propuesto celebrar unidos el Día del Euskera del presente año. Hemos querido asumir el compromiso de fortalecer el euskera y la convivencia lingüística, un compromiso acorde con la dimensión y posibilidades de cada cual. Para ello nos hemos hecho una pregunta: "¿Qué puedo hacer yo por el euskera?"

Los y las firmantes de la presente declaración queremos dar una respuesta propia a esa pregunta, una respuesta que, en una u otra medida, fortalezca el euskera en nuestros ámbitos respectivos.

Igualmente, queremos invitar a toda la ciudadanía y a la totalidad de los agentes sociales a hacerse esa misma pregunta ya que cada cual medite su respuesta, porque las aportaciones de todos y todas son útiles y beneficiosas para la revitalización del euskera y para reforzar nuestra convivencia.

Celebremos con alegría y orgullo, por tanto, el Día Internacional del Euskera. Y vivamos en adelante el euskera haciendo de él una lengua viva, entre nosotros y nosotras y en nuestra cotidianidad, respondiendo a la pregunta "¿Qué puedo hacer yo por el euskera?" y difundiendo esa misma pregunta a lo largo y ancho de nuestra sociedad."

"HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA

Ikusirik datorren abenduaren 3an ospatuko den 2016ko Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan aurkeztutako adierazpena,

Herritarren Informazio Batzordeak, EAJ-PNV eta Bildu alderdietako ordezkarien aldeko botoarekin eta PP alderdiko zinegotziaren abstentzioarekin, ondorengoa onartu du:

AKORDIOA:

LEHENENGOA.- *AKOBA erakunde arteko Koordinazio Batzordeak datorren abenduaren 3an ospatuko den 2016ko Euskararen Nazioarteko Egunerako egindako Adierazpena onartzea".*

Alkatea: hau da Alkoran onartu den adierazpena. Zerbait esan nahi duzue? Orduan, bozkatzeari ekingo diogu.



Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

4.- Gizarte Zerbitzuetako Saileko hitzarmena.

Alkatea: lehengo egunean, informazio-batzordean, komentatu genuen hitzarmen honen helburua dela Artziniegan, Okondon eta Aiaran ematen diren gizarte-zerbitzuetarako dagoen administrari laguntzailearen lanaldiaren luzapenaren %80 finantzatzea. Irizpena irakurriko dut.

"HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA

Ikusirik Arabako Foru Aldundiaren Zerbitzu Sozialetako Sailaren eta Aiara, Artziniega eta Okondoko Udalen arteko oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko lankidetzeta-hitzarmena aldatzeko proposamena, abenduaren 17ko 66/2002 eta urtarrilaren 12ko 1/2010 Foru Dekretuetan xedatutakoaren babespean.

KONTUAN HARTUZ, Hitzarmen hau sinatzearekin batera aldatu egingo dela, 2016ko abenduaren 1etik aurrera, 2003ko maiatzaren 21eko data duen Hitzarmenaren hirugarren klausula, ondorengo idazketa hartuko duena:

"Hirugarrena.- 1/2010 Foru Dekretuaren I. Eranskinaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, A zonaldeak, Ayala/Aiaran egoitza duena eta Ayala/Aiara, Artziniega eta Okondo udalerriak barne hartzen dituena, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bat izango du Gizarte Lanean diplomaduna den pertsona batekin eta, pertsona horri administrazio-laguntza emateko xedearekin, proposatutako zonaldeak administrari laguntzaile titulazioa duen pertsona bat ere izango du, lanaldi erdia izango duena".

KONTUAN HARTUZ, Hitzarmen hau sinatzearekin batera aldatu egingo dela, 2016ko abenduaren 1etik aurrera, 2003ko maiatzaren 21eko data duen Hitzarmenaren seigarren klausula, ondorengo idazketa hartuko duena:

"Seigarrena.- Laugarren xedapenean ezarritakoaren helburuetarako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen unitateko 2016 ekitaldirako gehienezko gastu-modulua, dagozkion portzentajeak ordaintzeko oinarri gisa erabiliko dena, honakoa izango da:

Gizarte Lanean diplomaduna:

Soldata gordina (antzinatasunik gabe)

40.005,99

2012ko aparteko ordainsaria berreskuratzeko %50

1.262,14€/ordainsaria

+ 19,02€/hirurtekoa

Antzinatasuna

652,14€/urtea/hirurtekoa

+ 2015 produktibitatea / antzinatasuna

Gizarte-gastuak 12.418,71 €

(11.231,93€ Gizarte Segurantzarako eta 1.186,78 € Elkarkidetzarako)

Administrari laguntzailea:

Soldata gordina (antzinatasunik gabe)

1.256,27 €



Gizarte-gastuak 385,67 Gizarte Segurantzarako

Garraio-gastuak: 1.600€/urtea."

Herritarren Informazio Batzordeak aho batez onartu du ondorengo

AKORDIOA:

LEHENENGOA.- Arabako Foru Aldundiaren Zerbitzu Sozialetako Sailaren eta Aiara, Artziniega eta Okondoko Udalen arteko oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko lankidetzahitzarmena aldatzeko proposamena onartzea, abenduaren 17ko 66/2002 eta urtarrilaren 12ko 1/2010 Foru Dekretuetan xedatutakoaren babespean, 2003ko maiatzaren 21ean sinatutako Hitzarmenaren hirugarren eta seigarren klausulei dagokienez.

BIGARRENA.- Alkateari Hitzarmena sinatzeko boterea ematea."

Alkatea: zer edo zer aipatu nahi duzue?

Arkaitz San Jose Martínez: nik ulertzen dudanez, hitzarmen honek egiten duena da arautzea edo babestea, ba lanaldi erdi horren luzapena gehi orain arte ematen ari den zerbitzua. Baina tira, apur bat deigarria iruditzen zait, izan ere, begira, langileek izan beharreko profil profesionala aipatu denez, eta hain zuzen ere aurreko puntuan euskaraz aritu garenez, euskararen garrantziaz eta euskararen alde egin dezakegunaz, deigarria da lanpostu hauen hizkuntza-eskakizunak ez aipatzea. Gerta liteke funtzio horiek betetzen ari diren pertsonen hizkuntza-eskakizunak ez betetzea, baina pertsonen eskakizunak ez betetzeak ez du esan nahi lanpostuen hizkuntza-eskakizunik ez izatea. Eta Gizarte Lanean tituluduna izatea eskatzen den modu berean, ba, kontuan har liteke ere agian 2003an kontuan hartu ez zen alderdi hori, baina tira, 2016an, agian nolabaiteko hizkuntza-eskakizuna eman beharko litzaieke lanpostu horiei.

Alkatea: egia esan ez dakit lanpostuen kalifikazioa zein den. Badakit egoera berezia dugula Gizarte Zerbitzuen alorrean. Gizarte Langilea Aiarako Udaleko langilea da. Orduan, ez dakit, bere garaian ez dakit zein hizkuntza-eskakizun ezarri zen lanpostu honetarako. Administrari laguntzailearen kasuan, Kuadrillan dagoen poltsa bat erabiltzen da eta Kuadrillatik egiten da kontratazioa. Ez dakit bere garaian zeintzuk izan ziren eskakizunak, pentsatzen dut euskara eskatuko zela, eta Kuadrillaren poltsa izanik, 3. hizkuntza-eskakizuna.

Arkaitz San Jose Martínez: baina nik diot hori adierazi beharra dagoela, nonbaiten adierazi bada, ez dut ezer esan, baina...

Alkatea: ez dakit adierazi den edo ez, baina edozein kasutan ere, hitzarmenaren aldaketa lanaldiaren luzapenari estaldura emateko da abenduan zehar.

Arkaitz San Jose Martínez: aipatzen da ere Gizarte Lanean Diplomaduna izan behar duela.

Alkatea: Gizarte Langilea, bai. Laguntzailea Kuadrillak dauka. Hitzarmen hau urrats bat da, Herritarren Informazio Batzordean komentatu genuena, administrari laguntzailearen lanpostua Gizarte Zerbitzuetako Sailaren mende genuen Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza batekin, urteetan zehar aldatuz joan den diru-laguntza. Egia da azken urteotan murriztu egin dela eta, zerbitzu gisa, ezin dugu diru-laguntza baten mende egon administrari laguntzailea zenbat denborarako kontratatzen den erabakitzeko. Artziniega, Aiara eta Okondoko biztanleria hazi egin da, 6.000 biztanle inguru ditugu, edo gehiago, eta egia esan Gizarte Zerbitzuak indartu behar dira, bestela, ezingo diogu eskariari erantzun.

Arkaitz San Jose Martínez: nik bakarrik hori diot, nonbaiten adierazten bada, ez dut beste ezer esateko, baina beno, Artziniegako Udalaren mendekoa ere badenez eta nolabait Artziniegako Udaleko langilea izango denez, ba hori azpimarratu nahi nuen bakarrik.

Joseba Elejalde Ribacoba: gai honen inguruan bada Idazkari Kontu-hartzailearen irizpen bat gastuaren eta finantza-iraunkortasunaren arteko aurrekontu-oreka aipatzen duena. Beraz, nik jakin nahiko nuke, zerbitzu hau 2016tik eta 2017tik aurrera ematen jarraitzen bada, nola ordainduko den, nola lagunduko den diruz, nola saiaturiko garen oreka lortzen, gutxienez gastuaren oreka ez dadila...



Alkate: gutxienez abenduko hilabeterako irtenbidea dugu. 2017an, Gizarte Zerbitzuen maparen definizio berriarekin, saiatu behar gara zehazten langile gehiago behar direla Aiara, Okendo eta Artziniegako udalerrietako Gizarte Zerbitzuetan arreta emateko. Orduan, zentzu horretan, finantzaketa lortzen ahalegindu behar gara, Gizarte Langilearena jasotzen dugun moduan, hartara, zerbitzua indartzera datozen langileek ere Foru Aldundiaren finantzaketa izan dezaten.

Joseba Elejalde Ribacoba: Udal honek planteatzen al du orduan momentu honetan Gizarte Langile gisa ari den pertsonak Udal honetarako bakarrik lan egitea edo, aldiz, oraingo kasuan bezala, Aiarako Udalaren mende egon dadila, Aiarako Udaleko langile izanik eta bere zerbitzuak, edo zerbitzuen zati bat, Artziniegako Udalean emanez, edo Udal honetan kontratatuta dagoen pertsona hori beharrezko orduetan zehar egon dadila administrari laguntzailearekin gertatzen den moduan? Izan ere, momentu honetan, Gizarte Zerbitzuekin hitzordu bat lortu nahi duten pertsonen itxaron-zerrenda luze bat dugu.

Alkatea: zerbitzu hori beste Udalekin partekatu beharko da.

Joseba Elejalde Ribacoba: Udal honetan aztertu egingo da ordu horiek areagotzeko beharra? Hau da, orain goiz erdia ematen badu, edo lanaldi erdia, edo astean bi egun, ba hiru edo lau izan daitezela, administrari laguntzailearen kasuan bezala, Artziniegako herritarren itxaron-denbora txikiagoa izan dadin lortzeko.

Alkatea: hori aztertu beharko dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: ba aztertu beharko litzateke, bai sozietate honetako arduradunarekin nahiz gainerako udalbatzarekin, izan ere, nik badakit kexak jaso direla, eta kexa berriak iritsiko dira, eta ez dut esango errua gizarte-langilearena denik, berak bere lana primeran egingo baitu, baina agian Artziniegako Udalak jasotzen dituen zerbitzu-orduak ez dira egokiak eta areagotu beharko lirateke.

Alkatea: ongi baderitzozue, bozkatzeari ekingo diogu.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5.- Aiarako Kuadrillaren eta Aiara, Artziniega eta Okondoko Udalen arteko lankidetzaren hitzarmena Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetarako administrari laguntzailearen lanpostua finantzatzeko.

Alkatea: hemen, esango dizuet pasa den egunean Batzordean jorratu genuena izan zela kuadrillak azkeneko orduan bidalitako hitzarmena, Kuadrillaren Osoko Bilkuran jorratu zena eta, %80az gain, gainerako %20a ere barne hartzea planteatzen zuena, hau da, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Sailaren diru-laguntzak estaltzen ez duen zatia. Irakurri egingo dut.

"HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA

Ikusirik Aiara, Artziniega eta Okondoko Udalen eta Aiarako Kuadrillaren arteko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko lankidetzaren hitzarmenaren proposamena, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen administrari laguntzailearen lanposturako finantzaketaren babespean.



KONTUAN HARTUZ, 2016. urtean aipatu Udalek lankidetzeta-hitzarmen berri bat sinatu dutela Arabako Foru Aldundiarekin oinarrizko gizarte-zerbitzuen estaldura areagotzeko, hitzarmenaren esparru-geografikoan gertatutako biztanleriaren areagotzearen ondorioz.

KONTUAN HARTUZ oinarrizko gizarte-zerbitzuetako administrari laguntzailearen lanpostuaren lanaldia areagotu beharra dagoela lanaldi osora iritsi arte.

Herritarren Informazio Batzordeak aho batez onartu du ondorengo

AKORDIOA:

LEHENENGOA.- Aiarra, Artziniega eta Okondoko Udalen eta Aiarako Kuadrillaren arteko lankidetzeta-hitzarmena onartzea oinarrizko gizarte-zerbitzuetako administrari laguntzailearen lanpostuaren lanaldia areagotzeko (lanaldi osoa) 2016ko abenduan zehar, Udalek kontratazio honen kostuaren areagotzea finantzatzeko konpromisoa hartuta, sinatutako 2016ko lankidetzeta-hitzarmenaren arabera, eta zenbateko hori Aiarako Kuadrillari transferentzia bidez ordainduz.

BIGARRENA.- Alkateari Hitzarmena sinatzeko boterea ematea."

Alkatea: zer edo zer esan nahi duzue? Bozkatzeari ekingo diogu.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

6. 12/2016 kredituaren gaikuntza eta kontu-hartze txostena:

Alkatea: irizpena irakurriko dut.

"ANTOLAMENDU INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA

Ikusirik indarrean dagoen 2016ko Udal Aurrekontuaren Gastuen Egoera-orrian ordainketa-kredituak gaitzearen inguruko 12/2016 espedientea, 5.847,51 eurokoa.

Ukertuta, Idazkari-Kontu-hartzaileak jakinarazi duenez, espedientea bat datorrela otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 31. artikuluan eskatutako betekizunekin eta Egikaritze-aurrekontuaren Udal Arauan ezarritakoarekin, betiere ohartaraziz espediente honetako gastuek finantza-iraunkortasunean eragina izan dezaketela urtero errepikatzen diren gastuak izatekotan, 2016ko azaroaren 29an egokiro egindako Ogasun eta Antolamendu Informazio Batzordeak Udalbatzari proposatzen dio aho batez har dezala hurrengo

AKORDIOA



Aipatutako akordioa eta bertatik eratortzen diren diru-sarrerera eta gastuekin lotutako egoeren aldaketak, jarraian zerrendatzen direnak, onartzea:

DIRU-SARREREN EGOERA

Kreditua sortzen duten diru-sarrerak dira:

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
710.02	Eusko Jaurlaritza diru-laguntza: Udaletxe zaharraren irisgarritasuna hobetzeko, igogailua eta komuna.	5.847,51
	GUZTIRA	5.847,51

eta, aurrekontuari dagokionez, 2016ko ekitaldirako indarrean dagoen Aurrekontuaren Diru-sarreraren Egoera aldatzea dakarte, modu honetan:

AURREKONTU- APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAKO KREDITUA	IGOERA	KREDITUA GUZTIRA
710.02	Eusko Jaurlaritza diru-laguntza: Udaletxe zaharraren irisgarritasuna hobetzeko, igogailua eta komuna.	28.343,85	5.847,51	34.191,36
		28.343,85	5.847,51	34.191,36

DIRU-SARRERA KONTZEPTUAN IGOERAREN ZENBATEKO OSOA: 5.847,51

GASTUEN ORRIA

Aurrekontu- aplikazioa	IZENA	ZENBATEKOA
1622.421.004	Hondakinen sentsibilizazioa. Aiarako Kuadrilla	2.122,12
230.421.002	Gizarte Zerbitzuetako laguntzailea. Aiarako Kuadrilla	3.725,39
	GUZTIRA	5.847,51

GAITUTAKO KREDITUEN ZENBATEKO OSOA: 5.847,51

Artziniegan, 2016ko azaroaren 29an."

Alkatea: zer edo zer aipatu nahi duzue?

Arkaitz San José Martínez: bai, nik, Josebak dagoeneko aipatu duenaz gain, Idazkariaren txostenean esaten dena, seguruenik hurrengo ekitaldietan ere gastuak ekarriko dituzten gastuak onartzen ari garela eta gastua areagotzen ari garela diru-sarrerak areagotu gabe, horrez gain, nik galdera bat egin nahi dut zeren eta, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, nik ulertzen dut Eusko Jaurlaritzak onartu duela 5.847,51 €-ko diru-laguntza bat, diru-laguntza hori pasako dela, diru-laguntza horretarako baita, Udaletxe zaharreko igogailuaren eta komunaren irismena hobetzeko partidara, beraz, partida hori areagotuko dela eta hori dela onartzen ari garena. Bestalde, ez dut oso ongi ulertzen aldi berean zergatik onartzen ari garen Kuadrillaren hondakinen sentsibilizazio gastuak eta zerbitzuetako laguntzailearenak, hauek



Eusko Jaurlaritzaren igogailua eta komuna hobetzeko diru-laguntzaren berdinak izanik, zentimora arte, es dakit kasualitate hutsa den, edo ez dakit horren arrazoia zein den.

Alkatea: ez da zentimora arte berdinak izatea. Gertatzen dena da guk, hasiera batean, Udaletxe zaharreko obraren kontratazio-espeditentea abian jarri genuela Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza kontuan hartu gabe.

Arkaitz San José Martínez: bai, baina nik diodana da, diru-laguntza hau sar daitekeela 28.343,85€ zituen jatorrizko partidari, beraz partida hori areagotuz, eta bestalde jorratzen ari garela ere hondakinen sentsibilizazioarekin eta azken hilabete honetarako Gizarte Zerbitzuetako laguntzailearekin lotutako gastuak, nik galdetzen dudana da hori kasualitate hutsa den edo ez.

Alkatea: gertatzen dena da hasiera batean Udaletxe zaharreko obraren partida soberakinekin finantzatu zela. Orduan, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasotzean, berezko funtsetatik hartu genuen diru hori Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du, beraz, egiten ari garena da, eta proposamen teknikoak izan zen, ba kreditu gehigarriak egiten joan ordez, kreditu-gaikuntzak egitea. Izan ere, hasiera batean gure soberakinen kontura jarritako diru hori orain diru-laguntza bidez jasoko dugu eta, ondorioz, diru-laguntzaren diru hori aurrekontuko beste gauzetarako erabili ahal da. Kreditu gehigarri bat egiteko aukera ere bazen, soberakinen kargura, baina...

Arkaitz San José Martínez: orduan soberakinetatik ordaindu da...

Alkatea: hasiera batean guztirako zenbatekoa hartu zen kontuan eta Udaletxe zaharreko obraren soberakinekin egin zen, Eusko Jaurlaritzaren komunikazioa jaso aurretik. Orduan, noski, bere garaian izan genuen aukera Udaletxe zaharreko obraren soberakinen erabilera hori bertan behera uzteko, diru-laguntzaren zenbateko zehatzean, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat jasoa genuelako. Eta mugimendu hori ez da egin. Beraz, ikuspuntu teknikotik proposatzen dena da esate, tira, badugunez eta badakigunez diru-sarrera handiagoa izango dugula Eusko Jaurlaritzak Udaletxe zaharrerako eman digun diru-laguntza dela eta, eta hori ez da Aurrekontuan aurreikusi, ba areagotu dezagun daukagun gastua eta gastu horiek soberakinekin finantzatu beharrean finantza ditzagun...

Arkaitz San José Martínez: hau da, kreditu-transferentzia bat egingo dugu partida batetik bestera.

Alkatea: kreditu-transferentzia bat ez. Kreditu gehigarri bat egin beharrean, kreditu-gaikuntza bat egingo da.

Ascensión Hormazabal Meabe: Arkaitz harrituta dago bi zenbatekoak bat datozelako, azken zentimora arte, baina nik uste dut irisgarritasunerako diru-laguntzak ez duela zenbateko hori.

Alkatea: ez, ez du zenbateko hori.

Ascensión Hormazabal Meabe: beste zenbateko bat du, baina hau da geratzen den gaindikina.

Alkatea: oker ez banabil, Eusko Jaurlaritzaren irismena hobetzeko diru-laguntza 50.000 €-koa zen.

Arkaitz San José Martínez: orduan ez dago harreman zuzenik alde batean sartzen denaren eta beste aldean xahutzen denaren artean.

Alkatea: ez, harreman zuzena da aurrekontuaren aldaketa orekatua izan behar dela.

Arkaitz San José Martínez: bai, bai, noski, balantzeak zerokoa izan behar du.

Alkatea: orduan gastuak eta diru-sarrerak berdintzen dira jaso dugun diru-laguntza handiago delako.

Alkatea: ekingo diogu bozkatzeari?

Joseba Elejalde Ribacoba: nik gauza bat argitu nahi dut gai honen inguruan. Eta nolabait lehen esandakoa azpimarratuko dut. Nire ustez, kontratatu aurretik, edo Osoko Bilkura honetan administrari laguntzaile baten kontratazioari lehentasuna eman aurretik, nik uste Udala honek egin beharko lukeena dela, alde batetik bilera bat antolatu, datorren urteko aurrekontuak aztertu, hiru alderdien artean sakonki aztertu zeintzuk diren herriak behar dituen hobekuntzak, zeintzuk diren beharrak, non murriztu daitekeen eta non xahutu daitekeen. Gaur, Osoko Bilkura honetara ekarri diguzue 2016rako gastu bat, abenduko hilabeterako gastua alegia, jakin gabe 2017. urtean zerbitzu hori gainerako herritarrei ematen jarraitzeko aukera izango dugun, eta nik uste dut astoari zakuak jarri aurretik asto bat izan behar dela. Beraz, lehenik eta behin



aurrekontuak eduki beharko genituzke aztertu ahal izateko eta ikusi ahal izateko zeintzuk diren Udal honen eta bere herritarren beharrak. Uste dut txostena oso argia dela eta argi dio ezin dela xahutu sartzen dena baino gehiago, beraz hori azpimarratu nahi nuen berriz ere.

Alkatea: eta horixe da egiten ari garena. Aurrekontu-aldaketa honen xedea da 2016. urtean zehar hobetu behar izan dugun zerbitzua barne hartzea, Eusko Jaurlaritzak orain arte honetarako ematen zigun diru-laguntza nabarmen murriztu baita, eta egia da horrek gastu arruntan areagotzea dakarrela, baina bestalde lanean ari gara beste toki batzuetatik gastu arruntak murrizteko eta aurrekontuaren oreka mantentzeko.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik esan nahi dizut, Iñigo, azken batean esaten ari zaren guztia oso ongi dagoela, baina azaldu nahi dizudana da zenbait ekimen hartu aurretik alderdi guztiak bildu beharko gara eta Udal honen benetako beharrak zeintzuk diren aztertu. Eta zuk esaten badidazu administrari laguntzaile bat behar duzula, lanaldi osoarekin, ba ikusi beharko genuke zein gastu arruntetako partida kendu behar ditugun aurrekontuaren oreka mantentzeko, besterik ez. Ez beste munduko ezer eskatzen ari.

Alkatea: ez, ez. Eta gainera, aurrekontuak bat etorri behar dugu, ez dago besterik.

Joseba Elejalde Ribacoba: aurrekontuaren aurreproiektu bat izan dezakegu eta horren gainean lan egin, eta azaroan gaude, abendua jada.

Alkatea: ondo da, bozka dezagun orduan.

Aurkako botoak:

Batere ez

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta María Lorente Burgos EAJ-PNV alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamarrak eta hogei minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.